



NOLA LANDU KIROLARI BURUZKO INFORMAZIOAK GENERO IKUSPEGITIK



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

IZENBURUA:

“Nola landu kirolari buruzko informazioak genero ikuspegitik”.

EDITOREA:

EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundea.
Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz.

TALDE TEKNIKOA:

Kualitate Lantaldea.

MAKETATZAILEA ETA DISEINU GRAFIKOA:

Composiciones Rali S.A.

DATA:

2018ko azaroa.

Aurkibidea

Sarrera	5
1. blokea: EMAKUMEEN ETA GIZONEN AGERIKOTASUNA KIROL-INFORMAZIOETAN.....	9
2. blokea: EMAKUMEEN ETA GIZONEN ESTEREOTIPOAK ETA ROLAK KIROL-INFORMAZIOETAN.....	13
3. blokea: EMAKUMEEN ETA GIZONEN GORPUTZA ETA IRUDIA KIROL-INFORMAZIOETAN.....	17
4. blokea: HIZKUNTZAREN ERABILERA EZ-SEXISTA KIROL-INFORMAZIOETAN.....	23
5. blokea: ANIZTASUNA ETA ASKOTARIKO DISKRIMINAZIOAK KIROL-INFORMAZIOETAN.....	27
6. blokea: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA KIROL-INFORMAZIOETAN.....	29

Sarrera

2014-2015 aldian, Emakunderi atxikita dagoen Begira publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku Batzordeak bultzatutako lankidetzaprozesu bat garatu genuen publizitate-agentziek, komunikabideek eta generoko espezialistek **Kode Deontologikoa eta Autoerregulaziokoa** lantzeko eta hari atxikitzeko, Euskadin **publizitate eta komunikazio ez-sexista gauzatzeko**. Gainera, kode hori eraginkor bihurtzeko zenbait Dekalogo ere egin ziren. **Publizitatearen jardun profesionalean eta komunikazioan erabilera sexista posibleak detektatzeko eta, kasuan kasu, desagerrarazteko** alderdi eta konpromisoak biltzen dituzte dokumentu horiek, baita emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzekoak ere.

Kodea sendotzeko eta ezartzeko prozesu bati hasiera eman genion 2016an, eta testuinguru horretan sortu genuen **Kode Deontologiko eta Autoerregulaziokoari atxikitako erakundeen Begira sarea**. Zailtasun guztiak diagnostikatzea eta batera bideratzeko aukera ahalbidetzea izango dira sarearen eginkizun nagusiak, lan-tresna praktikoen bidez. Esparru horretan, hainbat material sortu ditugu, hala nola, *Hauteskunde-prozesuetako informazio-tratamendurako gida, dekalogoei lotutako check-list deitutakoak* edo *Haurrei zuzendutako publizitatearen tratamendu ez sexistarako gomendioak*.

Une honetan, gai jakin batean lan egiten ari gara Begira sarean aurtengo 2018 osoan **–kirolen tratamendu publizitario eta mediatikoa–** eta, aurrekoetan bezala, erreminta praktikoa adosteko eta erabilgarri izateko premia planteatzen zaigu (eskuliburuak, gidak, gomendioak eta abar) kodea betetzea errazteko eta genero-ikuspegia agentzia eta hedabideetako profesionalen eguneroko lanean sartzeko.

Feminismoak generoaren teoriekin azterketa sozialari egin dion ekarpenari esker, genero-sistemak gizarte-egituran zein arrazoi eta mekanismorekin funtzionatzen duen azaldu ahal izan da. Testuinguru horretan, **genero-rolak eta estereotipoak funtsezkoak dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasun ezak betikotzeko**. Hain zuzen, komunikazio-prozesuetan sexismoa erabiltzea berdintasun ez hori betikotzen duen elementu nagusietako bat da,

bere gaitasun sozializatzailea dela eta. Gure ingurunean, pertsona guztiok etiketazen eta sozializatzen gaituzte genero-sistema horretan, eta, hori horrela, egoera bidegabeak betiketzen dituzten mezuak erreproduzitu eta horren aldeko ideiak indartu egiten ditugu azkenean, natural eta normal bihurtzeraino.

Kirolak eta esparru horretatik eratorritako mezuak ere eraginpean hartzen ditu sistema horrek. Hortaz, **funtsezko arloa dugu, eta bertan lan egin behar dugu bere gaitasun sozializatzailea, edukien zabalkunde masiboa** eta emakumeen eta gizonen arteko **desberdintasunari eusten dieten portae-ra-jarraibideen erreprodukzioa kontuan izanda**, haien aniztasuna ezkutatzen dela ere ahaztu gabe.

Datu batzuk argigarriak dira kirolak, komunikabideen bidez, eragile sozializatzaile moduan eta berdintasun eza betikotu dezakeen elementu gisa duen garrantzia nabarmentzeko.

6

Albistegi generalistetan hiru edukitatik bat kirolekoa da edo kirolarekin lotuta dago. Gure inguruneko telebista-ikusleek astean ia hiru ordu ematen dituzte kirola ikusten. Halere, kirolak komunikabideetan berebiziko lekua hartzen badu ere, **emakumeak kirol-albisteen % 5en protagonista dira soilik**, gizonak, berriz, % 92rena, eta horrek ez du kirol-jardueraren errealtatea erakusten. Adibide moduan, Rioko Olinpiar Jokoetan Espainiako Estatuaren izenean lehiatu ziren kirolariek irabazitako 17 dominetatik 9 emakumeek lortu zituzten; Londresko Olinpiar Jokoetan, aldiz, 17tik 11.

Landu dugun erreminta horrek **jarraibide generikoak eskaini nahi ditu edozein kazetaritza-modalitatetan** (informazio-arlokoa, iritzi-arlokoa eta interpretazio-arlokoa) genero-ikuspegi batetik kirol-informazioei ekiteko moduari dagokionez, edozein formatutan dela ere, hau da, albistea, laburra, erreportajea, elkarrizketa, kronika, editoriala, eta abar. Gainera, euskarri profesional nagusiek lan egiteko pentsatuta dago –irratia, telebista, prentsa, digitala...– eta bitarteko generalista zein kirol-arlokoiei bideratuta dago.

Bestalde, erreferentzia gisa sartu dugu jarduera fisikoarekin edota kirol-jarduerarekin lotutako edozein eduki. Hau da, erreminta hori erabili ahalko litzateke Olinpiar Jokoetan parte hartzen duen atleta bati buruzko informaziorako, ber-

tako igeriketa-talderako edo baita *runningaren* egungo fenomenoari buruzko informazio bat egiteko ere.

Horrela, profesionali ahalbidetuko digu kontuan hartu beharreko funtsezko elementuak aldeztatik ezagutzeko kirolari buruzko informazio bat genero-ikuspegitik begiratuta lantze aldera.

Gaikako 7 bloketan egituratzen dugu erreminta, Sareak eta Emakunde/Begirak landutako dekalogoen ondoriozkoak. Blokeetako bakoitzak helburu batzuk eta *check-list* bat sartzen ditu, eta horri esker, kazetaritza-edukiak landu behar dituenari informazioa nola planteatu behar duen aztertzea ahalbidetuko dio. Horrela, zenbat eta lauki gehiago markatu, orduan eta sartuagoa egongo da genero-ikuspegia informazioetan. Azterketa horrek egiteko modua berriro pentsatzeko eta, beharrezkoa balitz, hobekuntzak gehitzeko edo okerrak konpontzeko aukera emango digu.

**Dokumentu hau PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ SEXISTARAKO
KODE DEONTOLOGIKO ETA AUTOERREGULAZIOKOA
INPLEMENTATZEKO BEGIRA SAREAREN parte diren
entitateek egin dute elkarlanean**

EMAKUMEEN ETA GIZONEN AGERIKOTASUNA KIROL-INFORMAZIOETAN

Helburuak:

- Agerikotasun eta garrantzi berdina ematea emakumeei eta gizoni.
- Emakumeek edo gizonek genero-rolak zalantzan jartzen dituzten kasuak nabarmentzea.
- Emakumezko kirolariak beren aniztasun osoan (jatorria, gaitasun funtzionala, askotariko sexualitateak, sinesmen erlijiosoak, maila ekonomikoa,...).
- Tratamendu tekniko bera ematea emakumeei eta gizoni.

Nola lor daiteke hori?

1. Emakumeak dira sarrera-educiko edo eduki nagusiko protagonistak edo berdin banatuta dago gizonen eta emakumeen artean.
2. Emakumeak protagonista diren albisteez komunikabideko atal garrantzitsuenak hartzen dituzte (azalekoak, orri bakoitiak, hedabide digitaletan bisita gehien jasotzen dituzten kategoriak, albisteen irekitzea telebistan edo irratian).
3. Emakumeen lorpenak jorratzen dituzten kazetaritza-generoek gizonen kasuan eskatzen den leku eta garrantzi berezi bera (erreportajea, albiste zabala, elkarrizketa) eskatzen dute.

1. BLOKEA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN AGERIKOTASUNA KIROL-INFORMAZIOETAN

4. Maskulinizatu gabeko kirolak egiten dituzten gizonak protagonista diren albistek atal garrantzitsuagoak hartzen dituzte edo garrantzi bereziaz aurkezten dira. □
5. Informazio-leku handiena hartzen duten kirolak ez dira gizoni esleituta-koak. □
6. Emakumeei eta gizoni buruz egiten den tratamendu teknikoa berdina da (lehenengo planoak, pikatuak edo kontrapikatuak, eta abar). □
7. Kirol-informazioak jorratzen eta sinatzen dituzten emakumeen eta gizonen kopurua bera da. □

Adibidez: betetzen du edo ez du betetzen?

El País egunkariaren bertsio digitalean (2018ko ekainaren 4a), honela zabaldu zen kirol atala:

The screenshot shows the sports section of El País. The main headline is "España se deja sorprender" by Diego Forres. Below it are articles about Diego Costa, Lopetegui, Wilander, and a tennis article titled "Baja por maternidad" (Down for maternity) by Tere Nadal, which is circled in orange. The tennis article is about Serena Williams' absence from Roland Garros.

- Kirol maskulinizatueta ari diren gizonak dira albiste horien guztien protagonista.
- Emakumezko kirolari bati buruzko iritzi-eduki bakar bat dago: Serena Williams. Dena den, bera ez da testuaren ardatza, eta, aitzitik, bere ema-

kume-kondizioarekin lotutako gai bat jorratzeko da baliagarri: "amatasun-baja". Gizon batek (Toni Nadal) sinatzen du edukia.

- Gainerako artikulua ere gizonezkoek sinatutakoak dira.

2018ko ekainaren 7ko Teleberri-Kirolak saioan honela eman zen informazioa eta egin zen lekuaren banaketa:



- Gizonak dira eduki nagusien protagonistak, maskulinizatutako kirolak praktikatuz.
- Ia atal guztiak hartzen ditu informazio horrek.
- Emakumeei eta gizoni buruz egiten den tratamendu teknikoa ez da bera, kirola praktikatzen duen emakume bati buruz hitz egiten den aldi bakaurrean gizonenak dira erakusten diren irudiak (Rafa Nadal eta Diego Schwartzman agertzen dira Garbiñe Muguruzaren ordezt).

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ESTEREOTIPOAK ETA ROLAK KIROL-INFORMAZIOETAN

Helburuak:

- Estereotipo eta rol sexisten erabilera saihestea.
- Emakumeak zein gizonak baliatzea informazio-iturri eta iturri aditu gisa.
- Emakumeak pertsona askotariko, independente eta autonomo gisa erakustea, eta gizon baten figurarekiko ez definitzea (urliaren emaztea, berendia-ren alaba...).
- Emakume kazetariak izatea edukiak lantzeko prozesuko postu esanguratsu eta erabakigarrietan.
- Feminizatuz eta maskulanizatuz bestelako jarduera fisiko eta kirolak egiten ari diren emakume eta gizonak erakustea.

Nola lor daiteke hori?

1. Feminizatuz eta maskulanizatuz bestelako jarduera fisiko eta kirolean parte hartzen duten eta erdietsitako lorpenak ospatzen dituzten emakume eta gizonak agertzen dira.
2. Jarduera fisiko edo kirolei buruz tratamendu informatiboa egiten duten emakumeek paper garrantzitsua dute lan egiten duten programan edo saioan (ez dira soilik programaren kolaboratzaileak edo ez dituzte soilik gauza anekdotikoak kontatzen, eta, aitzitik, informazio esanguratsuen pisia eramaten dute).

2. BLOKEA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ESTEREOTIPOAK ETA ROLAK KIROL-INFORMAZIOETAN

3. Kirolarian balioesten diren ezaugarri eta jarrerak ez dituzte sustatzen eta indartzen ezarritako estereotipo eta rolak (ez dira zenbait puntu komentatzen, hala nola emakumezko kirolariaren edertasuna, fintasuna edo amatasuna, esaterako, baina balioan jartzen dira, aldiz, haren ahalegina eta nekazintasuna).
4. Emakumeak ez dira menpekotasun-egoeran agertzen figura maskulino batekiko.
5. Testigantzak, ahots adituak, ordezkariak, kirolariak eta bi sexuetako zaletuak erabiltzen dira edukiak lantzeko eta aurkezteko.
6. Emakumeak dira albistearen interes-ardatza eta horrela aitortzen zaie edukiaren azalpenean.

Adibidez: betetzen du edo ez du betetzen?

14

Errusiako curler bat da Anastasia Bryzgalova, eta 2016an Curlingeko Bikote Mistoen Munduko Txapelketa irabazi zuen jada. Brontzeko domina ere lortu zuen Pyeongchang 2018ko Olinpiar Jokoetan. Honela tratatu zuen La Vanguardia egunkariak:

Anastasia Bryzgalova, la doble de Angelina Jolie que ha enamorado en los Juegos de Invierno

- La deportista rusa en la disciplina de Curling que ha cautivado a millones de espectadores
- Los estrafalarios pantalones del equipo noruego de curling son la sensación de Pyeongchag
- San Valentín: se cuele en los Juegos Olímpicos de Invierno 2018
- Juegos Olímpicos de Invierno 2018: Horario de las pruebas de hoy 14 de febrero



- Brontzezko domina lortu izanagatik, kirolariaren meritua ahaztu eta haren edertasuna nabarmentzea erabaki zuen egunkariak.

Olinpiar Jokoekin –oraingoan 2016koekin– lotutako beste albiste bat, Carolina Marín kirolariak lortutako urrea da. As egunkariak albistea horrela ematea erabaki zuen:



- Titularrak entrenatzaileari (bere abizenarekin identifikatuta) ematen dio urrezko domina bat irabazi izanaren meritua eta ez kirolariari (“Carolina”).
- Gizon lasai, paziente eta salbatzaile gisa agertzen da entrenatzailea, eta hari esker lortu du garaipena kirolariak. Bere emozionalitatea kontrolatzeko gai ez den emakume gisa erakusten digute Carolina, heldu ez den pertsona bati dagokion bezala (“las rabietas”-amorrualdiak).

2. BLOKEA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ESTEREOTIPOAK ETA ROLAK KIROL-INFORMAZIOETAN

Ondoren beste adibide honetan ikus daiteke nola egin zioten elkarrizketa Carolina Marín berari RTVEn Huelvan izandako Europako Txapelketako final-laurdenetan lortu zuen garaipenaren ondoren:



- Bere kirol-jardun eta jardun profesionalarekin soilik lotutako galderak planteatzen dizkiote eta, edozein kasutan ere, Huelvan, "bere etxean", publikoaren aurrean egoteak beregan izan dezakeen eraginarekin zerikusia duten galderak.
- Ez da galderarik egiten bere harreman sentimentalei buruz, emakumeen lehia irrazionalari buruz, amatasunari edo bere itxura fisikoari buruz.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN GORPUTZA ETA IRUDIA KIROL-INFORMAZIOETAN

Helburuak:

- Emakumeak objektu dekoratibo, estetiko eta sexual gisa, izaki pasibo, desiragarri eta eskuragarri gisa, irudikatuak izan daitezela saihestea.
- Gorputzen aniztasuna erakustea gorputz horiek juzgatu edo gutxietsi gabe.
- Emakumeen fisikoari, sexu-erakarpinari edo janzkerari buruzko aipamenak saihestea.

Nola lor daiteke hori?

1. Albistearekin batera doan irudia, bideoa edo soinua (emakumezkoen in-tziriak tenis-partida batean, adibidez) koherentea da aurkezten den edu-kiarekin.
2. Irudietako emakumezko protagonistak ageri diren plano eta jarrerak ego-kiak dira eta praktikatzen duten kirolaren jarduna erakusten dute (hondar-tza-boleibolaren kasuan, adibidez, kirolariak ez dira agertzen gauza bihur-tuko dituzten eta sexualizatuko dituzten jarreretan).
3. Gorputzak eta irudietan jantzita azaltzen diren modua ez dira adjektibo peioratiboekin edo genero-estereotipoak eta -rolak sustatzen dituztenekin deskribatzen edo kalifikatzen.

3. BLOKEA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN GORPUTZA ETA IRUDIA KIROL-INFORMAZIOETAN

4. Irudien emakumezko protagonista direnen ezaugarri fisikoak askotarikoak dira (larru-azala, pisuak, altuera,..).
5. Albistearekin batera doan irudia kontatzen duten azpтитulu edo errotuluak deskriptiboak dira soilik.

Adibidez: betetzen du edo ez du betetzen?

Rio 2016ko Olinpiar Jokoetan, *Marca* egunkariak honako hau titulatu zuen, Errumania garaitu berri zuen emakumezkoen eskubaloiko Angolako selekzioko Teresa Almeida atezaina aipatzeko:



- Partidan egindako jokoa nabarmendu beharrean, haren fisikoaz hitz egi-ten duen titular bat egitea erabaki zuen egunkariak.
- Nabarmentzekoa, halaber, Twitterreko titularra hanburgesa baten eta friji-tutako patata batzuen emotikono batzuekin amaitzen dela.

Rio 2016ko Olinpiar Jokoetan ere, Mireia Belmonteren irudi hau aurkeztu zuen *Marca* egunkariak:

Los siete días de Mireia

• Comienza hoy en una de las modalidades en las que tiene más posibilidades de medalla. los 400 metros estilos

Javier Romano ^{ris}
@jromano

Comentarios
21

Compartido
20



Mireia Belmonte, durante un entrenamiento en la piscina olímpica de Rio ^{Realdares}

- Informazioa aurkezteko aukeratutako irudia ez da egokia, joko bat egiten delako Mireia Belmonteren jarrerren eta beste kirolarien arteko baten jarrerren artean, nolabaiteko ustezko sexu eta txantxazko edukia emanez.
- Interneten jaso zituen kritiken ondorioz, gaur egun ez da argazki hori al-bistearekin batera doana.

3. BLOKEA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN GORPUTZA ETA IRUDIA KIROL-INFORMAZIOETAN

MotoGP azafaten figuraren inguruan izan zen debatearen eta azafatek jarraitzean alde hartutako erabakiaren ondoren, As egunkariak honako artikulua atera zuen 2018ko otsailaren 2an:



"Dorna no eliminará a las azafatas, sin duda, una razón más para seguir gozando de un Mundial de MotoGP mejor que el de Fórmula 1".



- Moto GPko Mundialari buruzko informazioa eskaini nahi du artikulua, baina azafaten presentzia nabarmentzen du balio erantsi gisa.
- Azpigituluak gozamenerako (“gozo”) arrazoi eta iturri izatearekin lotzen ditu azafatak: gozaten jarraitzeko arrazoi bat gehiago (“una razón más para seguir gozando”).

Diario de Navarra egunkariak Maite Ruiz de Larramendi pilotariari buruz hitz egiten zuen 2018ko ekainaren 6an:



- Aurkezten den irudia koherentea da kazetaritza-piezaren edukiarekin.
- Artikuluaaren protagonista ageri den jarrerak haren jarduera erakusten du.
- Ageri diren gorputzak ez dira hizpide; ez dira ez deskribatzen, ez balioesten.
- Argazki-oina deskribapenari atxikitzen zaio, erantsitako adjektiborik gabe.

HIZKUNTZAREN ERABILERA EZ-SEXISTA KIROL-INFORMAZIOETAN

Helburuak:

- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista, barne-hartzailea eta integratzailea egitea.
- Hizkuntzaren erabilera errotu eta egokitzen onartutakoak desagerraraztea eta alternatibak bilatzea.
- Hizkuntzaren erabileraren bidez agerikotasuna ematea existitu bai, baina izendatzen ez denari.

Nola lor daiteke hori? (*)

1. Gizon eta emakumeen izendapen paralelo bat egiten da, izen eta abizenen erabilera asimetrikoa saihestuta.
2. Gizonentzat eta emakumeentzat balio semantiko berdina duten adjektibo eta izenak erabiltzen dira (ez da gauza bera "gizon publikoa" edo "emakume publikoa" esatea).
3. Inoiz ez da txikigarrikerik erabiliko emakume kirolariak aipatzeko.
4. Hitz-elkarketetan erreferentzia talde anitz bati edo ezagutzen ez den generoko pertsona bati erreferentzia egiten zaionean, "gizon" osagaiaren ordez, "-ari" atzizkia, "langile", "pertsona", "jende"... erabiltzen dira ("enpresa-jendea", "enpresa-gizona"-ren ordez; "legelaria" eta ez "lege-gizona"...).

(*) Euskararen erabilera ez-sexistarako berariazko itemak. Gaztelaniaren erabilera ez-sexistarako, ikusi gaztelaniarazko tresna.

5. Generoa daukaten izenekin plurala erabiltzen denean edo izendatutako pertsonaren generoa ez dakigunean, femenino eta maskulinoaren elkartea erabiltzen da: seme-alabak, neska-mutilak (“Eskolako maisu guztiak gonbidatuta daude”-ren ordez, “Eskolako maisu-maistra/irakasle guztiak gonbidatuta daude” eta abar). □
6. Euskarak ez du “-sa” atzizkiaren beharrik, eta, beraz, saihestu egiten da. Testuak berak edo testuinguruak adierazten du askotan pertsonaren generoa. Halere, generoa nabarmentzea beharrezkoa denean, izenaren aurretik jartzen da (“emakumezko aktorea” “gizon dantzaria”...). □
7. Maiz jokamolde egokia —batez ere, adorea eta ausardia— adierazteko erabili izan den “gizon” terminoaren ordez, beste molde batzuk baliatzen dira (“Etorri hona, ausarta bazara” eta ez “Etorri hona, gizona bazara”; Manuel behar bezala/ederto/ezin hobeto... portatu zaigu” eta ez “Manuel gizon portatu zaigu”). □
8. Jauzi semantikoa ekiditen da, alegia, ez da termino bat generikoa dela ulertarazten eta, gero, maskulinoa soilik zela adierazten (“Gazteek neskekin ligatzea atsegin dute” esan beharrean, “Gazteek beste gazte batzuekin ligatzea atsegin dute”; “Gelako haurrak askotan gaizki portatzen dira neskekin” adierazi ordez, “Gelako mutilak askotan gaizki portatzen dira neskekin”). □
9. Ikuspegi androzentrikoa saihesten da (“Frantziako iraultzaren ondorioz, sufragio unibertsala ezarri zen” esan ordez, “Frantziako iraultzaren ondorioz, gizon guztientzako sufragioa ezarri zen”; “Atenastarrek bozketa bidez aukeratzen zituzten ordezekoak” jarri beharrean, “Gizon atenastarrek bozketa bidez aukeratzen zituzten ordezekoak, horiek ere gizonak”). □

Adibidez: betetzen du edo ez du betetzen?

San Juango emakumeek Kontxako bandera bosgarrenez irabazi ostein, honako albiste hau argitaratu zuen *Berria* egunkariak 2018ko irailaren 11n:

KONTXAKO BANDERA

Bost bider lau: hogeit hamar bandera

San Juaneke historia egin du bosgarren aldiz segidan Kontxako Bandera irabazita, eta taldearen barruan badira hiru arraunlari eta patroia bat bost garaipenetan egondakoak: Laura Golarazena, Ane Hernandez, Ane Pescador eta Nerea Perez. «Ez dugu sinesten», esan dute laurak.



San Juango arraunlariak, pozez gainezka, Kontxako Banderarekin, Donostiako kaiko arrarplan, estropada amaitu berritan. © GORRKA RUEBIO / FOKU

- Garaipen horietan guztietan egondako hiru arraunlarien eta patroiarren izen-abizenak eta beraien iritziak agertzen dira testuan, lorpenari garrantzia emanez eta kirolariek egindako ahalegina azpimarratuz.

2016ko otsailaren 2an *Berrian* elkarrizketa egin zioten Joxemari Olasagasti aizkolariari, hilabete batzuk lehenago izandako istripuaren harira:

JOXEMARI OLASAGASTI: AIZKOLARIA

«Sentimendu handiko pertsona naiz, baina negarrik ez dut egiten»

Urte bukaeran «besoa galtzeko zorian» egon zen Igeldoko aizkolaria, eta nabarmena du, oraindik ere, ezker eskuko ezina, baina «gogorra» dela eta itzulliko dela ziur dago. Ezer gutxi gorde du hizketaldian.



- Aspaldian negarrik egin duen galdetuta, honako erantzun hau ematen du: “Ez, ez. Sentimendu handiko pertsona naiz, baina negarrik ez dut egiten”. Estereotipoei eutsiz, badirudi negar egitea ez dela gizonen kontua.
- Bestetik, Atutxa apustua atzeratzeko prest dagoela eta, “Txapeldun handia da Atutxa, eta gizon portatu da” dio. Gizontasuna, beraz, egokitasunaren eta zuzentasunaren sinonimo.

ANIZTASUNA ETA ASKOTARIKO DISKRIMINAZIOAK KIROL-INFORMAZIOETAN

Helburuak:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde erreferente sozial berriak sustatzea, sexuarekin batera askotariko diskriminazioak eragiten dituzten beste aldagai sozial batzuk kontuan izanda (sexualitateak, kulturak, arrazak, etniak, estatus soziala...).
- Emakumeak eta gizonak berdinak bezala ageriko egin eta tratatzea beren aniztasun osoan.
- Bi diskriminazio-motak edo gehiagok eragiten dieten talde sozialen barnean dagoen aniztasuna erakustea genero-ikuspegitik¹ (adibidez: emakumea, kirolaria, beltza eta lesbiana; emakumea, kirolaria eta gurpil-aulkian).

Nola lor daiteke hori?

1. Edukiak sortu aurretik, genero-ikuspegitik gogoeta bat egiten da eredu hegemonikoetatik harago doazen eta diskriminazio handiagoa pairatzen duten taldeetako pertsonak protagonista dituzten albisteei emango zaien estaldurari eta lekuari buruz. □

¹ Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea.

2. Bi diskriminazio-motak edo gehiagok eragiten dieten talde sozialetako pertsonei buruzko informazioa aurkezterakoan, ez dira estereotipo edo aurreiritzi sexistak errepikatzen. □
3. Albistearen kontakizunak agerian jartzen ditu emakumeek eta/edo gizonen bizi dituzten askotariko diskriminazioak, baita horiei aurre egiteko martxan jartzen diren estrategiak ere. □
4. Kazetaritza-edukiak sortzeko, ikuspegi feministatik edo genero-ikuspegitik aniztasunean eta askotariko diskriminazioetan trebatutako adituengana jotzen da. □

Adibidez: betetzen du edo ez du betetzen?

Serena Williams tenislariak BBC News hedabidean komentatzen ditu emakume beltz batek AEBetako lan-esparruan dituen zailtasunak.

The image shows a screenshot of the BBC News website in Spanish. The main headline reads: **"Muchos me dijeron que sería imposible cumplir mis sueños por ser mujer y por mi color de piel": la denuncia de Serena Williams sobre la discriminación laboral de las mujeres negras**. Below the headline, it says "Redacción BBC Mundo" and "1 agosto 2017". There are social media sharing icons for Facebook, Twitter, LinkedIn, Email, and a general "Compartir" button. Below the text is a photograph of Serena Williams. To the right, there is a "Principales noticias" section with three items: "Sabíamos que la única salvación era huir": cómo fue vivir la nueva erupción del Volcán de Fuego a las faldas del coloso (6 junio 2018), "Por qué asesinaron a Robert Kennedy y qué habría ocurrido en Estados Unidos si no hubiera muerto" (5 junio 2018), and "Cómo ha sobrevivido Qatar a un año de bloqueo de sus vecinos del Golfo" (6 junio 2018). At the bottom right, there is a "Más noticias" link.

- Emakume beltz bat aurkezten digu informazioak, mundu osoan arrakasta lortu duen eliteko kirolari bat.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA KIROL-INFORMAZIOETAN

Helburuak:

- Emakumeen aurkako indarkeriak jatorri sistemikoa duela ulertzea, emakumeek emakume direlako jasaten duten indarkeria baita.
- Biktimen eta haien ingurunearen intimitatea eta duintasuna errespetatzea, batez ere seme-alaba adingabeena.
- Beharrezkoak ez diren iritzi, xehetasun edo irudiak baztertzea, baita morboa dutenak ere.
- Emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen duten adierazpen, iritzi edo irudiak desagerraraztea.
- Indarkeria-adierazpen guztiak (sinbolikoa, hitzezkoa, psikologikoa edo fisikoa) modu egokian tratatzea eta aurreko puntuak kontuan izanda.

Nola lor daiteke hori?

1. Emakumeen aurkako indarkeria-kasurik izaten bada (sinbolikoa, fisikoa edo psikologikoa), estaltzen den kirol-esparruan ez da indarkeria hori sufritzen duena zalantzan jarriko eta errudun egingo.
2. Albistearen aurkezpenak erasotzailean (eta haren indarkeriazko ekintzan) jarriko du pisua, eta ez biktiman.

3. Baztertu egingo dira emakumeak biktima edo beren borondatez pertsona otzan gisa irudikatzen dituzten eta jasotako indarkeriaren justifikazio gisa agertzen diren irudiak, biktima bi aldiz biktima egiten dutenak.
4. Ikus-entzuleek indarkeria detektatzeko eta ekintza gaitzesteko moduan kontaktuko da informazioa.
5. Informazioan indarkeria jasan duen emakumearen kontaketa aurrean erasotzailearen edo haren ingurukoaren kontaketa gailentzea saihestuko da.
6. Hedabidean emakumeei buruz hitz egiteko erabiltzen den hizkuntza ez da peioratiboa, mespretxagarria edo etorkorra.
7. Hedabidean zabaltzen diren irudiak ez dira iraingarriak ez emakumearentzat, ez haren ingurunearentzat, irudikatzen dutenarengatik (gauza bihurtutako emakumeak, emakume biktimizatuak edo zainketen arduradun gisa irudikatuko emakumeak, eta hori ez da albistearen benetako fokua).
8. Bere lana betetzen ari denean emakumezko kazetari edo erreportariak jasaten duen edozein eraso, mota guztietakoa, salatzen eta gaitzesten da.
9. Egitatea estatistikekin batera aurkezten da, eta prebentziorako eta biktimak artatzeko baliabideak zabaltzen dira.
10. Emakumeen kontrako indarkerian adituak diren emakumeen iritziak jasotzen dira.
11. Biktima gisa bizi izan duten egoera gainditzea lortu duten emakumeei ematen zaie ahotsa.

Adibidez: betetzen dute edo ez dute betetzen?

2016ko urtarrilean Bartzelonako Espanyol taldearen zaleek honako hau esaten zuten pankarta bat atera zuten: Shakira guztiona da ("Shakira es de todos"). Hona *eldiario.es* hedabideak gertakari horri eman zion tratamendua:



- Egitatea tratatzen da Espanyol taldearen zaleak erantzule eginez.
- Pankartaren mezua testuinguruan jartzen du mezu matxista bat dela esanez.
- Galdera bat planteatzen da azpтитulu gisa, irakurleak gogoeta egitera eta gertakariaren matxismoa eta egoera onartezina dela detektatzera gonbidatuz.

Rubén Castro Betis taldeko futbolariari tratu txarrak eta sexu-erasoa leporatu zizkioten. Valladoliden aurkako partida baten ondoren, hauxe gertatu zen:



- *La Razón* egunkariak gertakaria aprobetxatu zuen *Rubenek Valladolid jipoi-tu du* ("Rubén Maltrata al Valladolid") titularra egiteko, ironizatu nahian eta emakumeen aurkako indarkeriagatik jokariaren aurka jarritako salaketak gutxietsiz.
- *eldiario.es* hedabideak pieza bat sortu zuen *La Razón* egunkariaren artikulua kritikatzen. Keinu hori izugarri positiboa bada ere, titularra deskontestualizatua zegoen, eta, hori horrela, titulua soilik irakurtzen zuenak jokalaria defendatzen ari zirela pentsa zezaketen.

Martxoaren 12an SER hedabideak albiste hau argitaratu zuen bere webgunean:

- Hedabideak biltzen eta zabaltzen duen emakumezko erreportari baten aurkako indarkeria-kasu bat da.



- Titularrean esaten da *erantzun matxista* ("respuesta machista") bat dela, erasotzailearen izenarekin eta irudiarekin, eraso jaso duen profesionalarena aipatu gabe.
- Azpigitulu gisa, komatxoaren artean agertzen da erantzuna, eta, hori horrela, irakurleak esaldia *matxista* ("machista") gisa ulertzeko arrazoia uler dezake.

Mehdi Benatia futbolariak adierazpen batzuk egin zituen penalti baten inguruan, bortxaketa batekin alderatuta. *Marcak* honela argitaratu zuen:

M Champions League Benatia: "El penalti fue como sufrir una violación"

Champions League • "Jamás puedes pitar un penalti así en el minuto 93", afirmó el central

Benatia: "El penalti fue como sufrir una violación"

12/04/2018 | 21:59 CEST

493 Comentar

ANTÍDOTO CONTRA LA OBESIDAD

La receta patentada por los dietistas dentro la grana de los revólver, nalgas y pene. Adelgaza 7 kg en 1 mes. Debido a su efecto adelgazador extraordinariamente rápido, sólo se puede aplicar con autorización por más de 21 días. [LEER MÁS >>](#)

sólo en [Buenos Aires](#)



- Mehdi Benatiaren esaldian, maila berean jartzen ditu iraina eta giza esku-bideen urraketa –batez ere haur eta emakumeen kasuan– futbol-partida bateko jokoaren gorabehera batekin.